


# ZIERBENAN EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) 2018-2022



**AURKIBIDEA**

1.- Testuingurua .....	3
2.- Zierbenan orain arte egindakoaren balorazioa eta ondorioak .....	5
3.- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP2018-2022) .....	13

## 1.- TESTUINGURUA

---

Nabarmena da, euskararen normalizazio-prozesuan aurrerapauso handiak egin dituela euskal gizarteak hainbat esparrutan, eta burututako ekimen askori esker, euskararen presentzia sendotuz doa. Hala ere, aurrerapausoak aurrerapauso, beharrezkoa da datozen urteetan ere lanean jarraitzea, euskararen erabilera handituko bada.

Helburu horri jarraiki, Zierbenako Udalak udalerrian euskararen egoera normalizatzeko lehenengo plana abian jarri zuen 2008 urtean. Izan ere, euskara plana ezinbesteko tresna da euskararen normalizazio-prozesua antolatzeke eta bideratzeko. Hortaz, udalerrian euskararen erabilera sustatu, areagotu eta bermatzeko erronka dugu aurrean, eta eragin esparrua Zierbena eta bertako herritarrak izango dira.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Aholku Batzordeak diseinatu zuten, eta euskararen erabilera areagotzea eta bermatzea eta euskara eta euskal kultura sustatzea du helburu, eta, horretarako, hainbat oinarri eta gidalerroen aplikazio praktikoak proposatzen ditu.

Azken finean, hauek dira Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu estrategikoak:

1.- **Euskararen jabekuntza** edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta helduen euskalduntzea. Euskara ama-hizkuntza gisa belaunez belaun transmititzen da, baina prozesu horretan eskolak ere zeresan handia du. Gainera, ume asko eta askorentzat eskola da euskaratik edateko izango duten iturri bakarra, euskararen jabekuntza lortzeko modu nagusia alegia. Gaur egun euskarak gaztelania du bizikide. Horrela bada, baldintza hauetan eskolak ahalegin berezia egin behar du euskara behar adinako mailan eta sendotasunez irakasteko. Horrekin batera, helduen euskalduntzea dugu 3. esparrua. Hiru bideak zaindu beharko dira, garrantzi ezberdinekoak izanda ere.

2.- **Euskararen erabilera**. Honetan gehien eragiten duten faktoreak hiru dira: lehena, hitzun kopurua; bigarrena, hitzunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta hirugarrena, inguruan harreman sare euskalduna izatea (familiar, lagunartean, auzoan, kalean...). Erabiliz zorrotzen den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu egiten baita. Horregatik hizkuntzaren ikuspegitik ondo zaindu behar dira familiaren, eskolaren eta euskaltegien luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak. Kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan munda, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta abar. Azken batean, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna egongo dela bermatu beharko litzateke.

3.- **Euskararen elikadura**. Hizkuntza erabiliko bada, elikatu egin beharko da euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez. Euskal hitzunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukia, bere jarduna aberasteko. Hortaz, garrantzitsua da hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz

jabetzen eta herritarren harreman-sare euskalduna zabaltzen, horiexek baitira erabilera elikatuko duten osagaiak.

### **Zehar lerroak:**

**Euskararen aldeko motibazioa.** Motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko. Izan ere, ikaste prozesuarekin eta hizkuntzaren erabilerarekin batera motibazioak elkar elikatzen duten osagaien oinarritzko triangelu bat osatzen du.

**Euskararen zabalkundea.** Beharrezkoa da euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea, bai eta guztiz komenigarria ere bere irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz eta praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

### **ESEPen egitura ondorengoa da:**

#### **Helburu estrategikoak:**

##### **1.- Euskararen jabekuntza**

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

##### **2.- Euskararen erabilera**

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

##### **3.- Euskararen elikadura**

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

#### **Helburuak lortzeko zehar-lerroak:**

##### **Euskararen aldeko motibazioa**

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

##### **Euskararen zabalkundea**

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

## 2.- ZIERBENAN ORAIN ARTE EGINDAKOAREN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Lehenik eta behin, Zierbenan euskararen gaitasuna eta bilakaeraren datu kuantitatiboak jaso eta planaren balorazio kualitatiboa egin dugu. Datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa izan da hausnarketa egitea, batetik, egoera soziolinguistikoaren jabe izateko, eta, bestetik, hobetzeko alderdiak zeintzuk diren identifikatu eta eztabaidatzeko.


### BALORAZIO KUANTITATIBOA

Euskarak gaur arte biziraun badu, zalantzarik gabe, belaunez belaun familia bidezko transmisioa gertatu delako izan da, hori baita hizkuntza baten biziraupena ziurtatzen duen biderik natural, eragingarri eta merkeena. Hala ere, Zierbenan nonbait, transmisio hori eten egin zen, eta herritarrek beste bide batzuk hautatu dituzte euskalduntzen joateko, batik bat, transmisio hori egin zezaketen euskaldun gutxi egon baita duela gutxira arte.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera (EAEko Biztanleria eta Etxebizitza zentsua, 2018), ondorengo da euskarak Zierbenan izan duen bilakaera:

#### Zierbenan Euskararen gaitasuna


Urtea	1996	2001	2006	2011	2016
Euskaldunak	131	166	280	364	458
Ia-euskaldunak	193	327	327	430	306
<b>Euskaldunak + ia-euskaldunak</b>	<b>324</b>	<b>493</b>	<b>607</b>	<b>794</b>	<b>764</b>
<b>Erdaldunak</b>	<b>808</b>	<b>696</b>	<b>660</b>	<b>632</b>	<b>705</b>
Biztanle kopurua guztira	1132	1189	1267	1426	1469



Datu horietan ikus dezakegu, azken 20 urteotan, Zierbenan euskararen ezagutzak gora egin duela. Izan ere, 2016an Eustatek egindako inkestaren arabera (2018an argitaratua), euskaldun eta ia-euskaldun kopurua batuz gero, erdaldunak baino gehiago direla ondorioztatzen da. Hau da, azken hogeitaz urteotan, euskaldun kopurua bikoiztu egin den bitartean, erdaldun kopurua jaitxi egin da.

### Zierbenan euskararen erabilera

	1996	2001	2006	2011	2016
Euskara	7	15	34	40	29
Gaztelania	1126	1176	1226	1348	1338
Biak	13	20	26	53	113
Beste bat	2	4	8	19	19
Guztira	1148	1215	1291	1460	1499



Taula horietatik ondorioztatu dezakegu azken 5 urteotan etxean euskara erabiltzen duten familia kopuruak behera egin duela, baina baita gaztelania hutsa erabiltzen duten familien kopuruak ere. Hortaz, euskara eta gaztelania tartekatzen dutenen kopuruak gora egin du. Hori guztia kontuan hartuta, euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartu beharko dira. Izan ere, gero eta gazte gehiago euskalduntzen ari direla ikusita, etorkizunean guraso bihurtuko diren horiengan eragin beharko da, euskara erabiltzen has daitezen.

## BALORAZIO KUALITATIBOA

Arestian aipatu dugun bezala, Zierbenako Udalak Euskara Biziberritzeko lehenengo Plan Estrategikoa onartu zuenetik 10 urte pasa dira, eta urte horietan egindako lanaren balorazio orokorrean badira nabarmentzeko hainbat kontu.

EBPNk hasieran eta ESEPk gero udalerriri egin dizkioten ekarpenen artean honako hauek aipagarriak direla deritzogu:

- Prozedura eta metodologia aldetik biek lan egiteko modu egokiago bat erakutsi dute, ordenatua eta jarraitua, alegia.
- Lana zentzuz eta helburu jakin batzuen arabera egiteko bidea hartzeko aukera baliatu dute. Plan Estrategikoen bidez Euskara Zerbitzuaren lana urteetan zein izango den zehaztuta dago, Plan Estrategikoak adierazten digulako. Era berean, urtez urteko lana ere aldeztu aurretik pentsatua dago, Kudeaketa Planaren bitartez. Honek antolaketa aldetik onura ugari ekartzen ditu: aurrekontuak egitea errazagoa da, hilerok zer egin behar den edo zer egin daitekeen zehazteko aukera ematen du...
- Egindako lana metodologia baten arabera ebaluatzen da: honek garrantzi handia du zertan egin den aurrera eta zertan ez ikusteko, eta, bide batez, etorkizuneko lana definitzeko (aurrerantzean landu beharreko alorrak aukeratzen laguntzen du, baita emaitza onak eman ez dituzten esparruak baztertzen ere).
- Udaleko hizkuntza politika aztertzeko eta bideratzeko tresna egokia da.
- Udal guztiok plan nagusi baten baitan lan egitea onuragarria da, udal guztiok sistema eta metodo berarekin lan egitea lagungarria izan baitaiteke elkarren berri izateko, esperientziak elkarren artean trukatzeko, kanpainak elkarrekin antolatzeko...

Hobetu beharreko arloen artean honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Anbizio handiko plan orokorrak dira EBPN eta ESEP, eta askotan esparru eta neurri asko aukeratzeko arriskua dago, Zierbena bezalako udalerriri batean guztiak baitira lana behar duten esparruak. Horrek arazoak ekarri izan ditu plana garatzeko orduan, ezinezkoa baita esparru guztiak aldi berean lantzea.

Zierbenan egindako ekintzei buruzko balorazioari dagokionean, 2008tik hona ekintza ugari egin dira, eta, oro har, egindako lana positibotzat jotzen da. Egia da euskararen erabileran ez dela horrenbeste igarri, baina bai herritarren jarreran eta motibazioan.

Lehenengo urteetan, euskara sustatzeko ibilbidearen hastapenetan ekintza guztiak zeukaten harrera ona, oso ona. Urte batzuetan gorako joera izan zuten. Hain zuzen ere:

- Haurrentzat antolatutako ekintzek aretoa (ez da oso handia eta kontuan hartu behar da haur-kopurua) bete egiten zuten.

- Gaztetxoentzat antolatutako kirol edo kultur ekimenetarako ezarritako gehienezko parte-hartzaile kopurua bete egiten zen.
- Helduentzako antolatutako tailerrak (hauek ia beti ele bietan antolatu izan dira), arrakastatsuak izan dira.
- Euskaltegian jendea gustura zebilen, taldeak eratzen ziren, 2009-2010 ikasturtean maila desberdinetako 6 talde osatu ziren.

Ekimen horien emaitzak laburbilduz, esan daiteke lortutako emaitzak positiboak izan direla. Izan ere, ekimen edota tailer guztietan gutxieneko eta gehieneko parte-hartzaile kopurua ezarri izan da, eta urte horietan guztietan behin besterik ez da tailer bat bertan behera utzi. Bertan behera utzi zen tailerra, “betiko jolasak familian” izan zen, gutxienez 8 ama/aita seme/alabak hartu behar zuten parte tailerrak aurrera egin zezan, eta 4k baino ez zuten eman izena.

Zierbenan urte hauetan guztietan ez da lortu euskararen erabileran apenas eragitea, ez da erraza hain erdalduna den gune batean erabileran eragitea, eta hori, Zierbenako herritarren euskararen ezagutza maila, EUSTATen 2016ko datuak kontuan hartuta % 52 euskaldun edo ia euskalduna da, 1.469 biztanletik 764 euskaldunak edo ia euskaldunak dira, eta 705 erdaldunak.

Hori guztia kontuan hartuta, kontzientziazio lana egiten jarraitzea ezinbestekotzat jotzen dugu, euskara dakiten herritar horiek beren artean euskara erabil dezaten. Eta, lan horretan ekiteko, Euskara Batzordea dago martxan. Une honetan, lan egiteko gogoia eta euskararen erabilera sustatu nahi duen Euskara Batzordea dugu Zierbenan.

Lan esparruan eta ostalaritza-merkataritza esparruetan ere egin dira ahaleginak, baina gorago ikusi ahal izan dugun bezala, ez dugu arrakastarik izan. Agian, planteamenduan okertu ginen, enpresa guztiak batera hartu eta haien planak egiten saiatzea larregizkoa izan zen, eta ez zuen erantzun onik izan. Aurrerantzean, aukeraketa estrategikoa egitea izango da onena, saiatu behar dugu gutxi batzuk euskararen aldeko lanean lagun elkarkidetza egin dezaten eta lagun dezaten, haien plan propioa izan gabe.

2017ko abenduaren 3an Zierbenako Kirol Elkarteekin euskara sustatzeko lankidetzahitzarmena sinatu du Udalak, eta aurrerantzean, kirol elkarte hauek ezinbestekoak izango dira euskara sustatzeko ibilbidean.

### **Balorazio horiek kontuan hartuta, Indarguneak eta ahuleziak**

Zierbenan euskararen dimentsioan jende gutxi murgiltzen dela ikusita, udalerrriaren benetako argazkia aztertzeke aukera izan dugu.

Lan hori egiteko ESEP osatzen duten esparru eta neurri guztiak arloz arlo aztertzea izan da aukeratutako bidea.



Hona hemen Zierbenak eman digun argazkia:

1. **Familia bidezko transmisioa**
2. **Irakaskuntza (Zierbenan ez dago ikastetxerik)**
3. **Euskalduntze eta alfabetatzea**
4. **Administrazioa**
5. **Gune geografiko euskaldunenak (Zierbena ez dago talde honetan)**
6. **Arlo sozio-ekonomikoa**
7. **Aisia eta kirola**
8. **Liburugintza**
9. **Kulturgintza**
10. **Publizitatea**
11. **Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**
12. **Hedabideak (Zierbenan ez dugu hedabiderik)**
13. **Informazioa eta komunikazioaren teknologia**

Familia bidezko transmisioa:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara hizkuntza akademikoa baino ez izatea</li> <li>• Guraso erdaldunek jarrera proaktiborik ez izatea</li> <li>• Nerabearoan euskaldunak ere gaztelaniaz aritzea</li> <li>• Euskara mundu modernoarekin ez identifikatzea</li> <li>• Guraso mistoen/euskaldunen etxeetako hizkuntza gaztelania izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaldunek euskarari atxikimendua handia izatea</li> <li>• D ereduan ume-kopuru handia matrikulatzea</li> <li>• Atzerritarrek gogo handia izatea seme-alabek euskara ikas dezaten. Integraziorako elementu garrantzitsu gisa ikustea.</li> </ul>

Irakaskuntza:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza arautuak euskara salbatuko duen uste faltsua hedatuta egotea.</li> <li>• Euskara oso akademizatuta egotea</li> <li>• Ikastetxe barruan, eremu informaletan (patioan, ikasleen arteko elkarrizketetan,...) gaztelaniak hartzen duen tokia oso handia izatea.</li> <li>• Zierbenan ikastetxerik ez egotea, haiekin harreman zuzena izateko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• D ereduak prestigioa handia izatea</li> <li>• D eredua kalitatezko hezkuntzarekin lotzea</li> <li>• D ereduko matrikulazio-kopurua handia izatea</li> </ul>

Euskalduntze eta alfabetatzea:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara ikastea zaila den ustea hedatuta egotea</li> <li>Zierbenan euskaltegirik ez egotea</li> <li>Euskarari balio erantsirik ez aitortzea. Ondorioz, euskara ikasteko aukera egitea zaildu egiten da.</li> <li>Herriko sektore handi batek euskararekin inolako harremanik ez izatea</li> <li>Etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko tresnarik ez izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskualdeko herrietan euskara ikasteko aukera asko egotea. Tipologia desberdinetako ikastaroak eskura izatea (iraupenez, hartzaileei dagokienez,...)</li> <li>Euskara ikasteko laguntza ekonomikoa eskaintzea</li> </ul>

Administrazioa:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara erabiltzeko ohitura falta</li> <li>Herriarrek euskaraz ezer ez eskatzea</li> <li>Harreran dauden langile batzuk euskaldunak ez izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileei dagozkien perfilak, apurka-apurka lortzen joatea</li> <li>Euskararekiko jarrera aldatzen joatea</li> <li>Langileak euskalduntzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea</li> </ul>

Arlo sozioekonomikoa:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lan-mundua, oro har, oso erdaldunduta dagoen esparrua izatea</li> <li>Lan-munduan euskara txertatzeko sustapen-lan gutxi egin izana</li> <li>Euskara negozio-hizkuntza gisa ez ikustea</li> <li>Euskaldun oso gutxi egotea</li> </ul>	<p>EZ DUGU INDARGUNERIK AURKITU</p>

Aisia eta kirola:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Haurren ekitaldiak euskaraz izan arren, gaztelaniak presentzia handia izatea, inguruak eraginda</li> <li>Helduen arteko harremanak aisialdi-guneetan, batez ere, gaztelaniaz izatea (tabernetan,...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak egiten dituen eskaintzetan komunikazioak (kartelak, etab.) ele bietan egitea</li> <li>Kirol-instalazioetako paisaia linguistiko gehiena, gutxienez, ele bietan egotea</li> </ul>

- |  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol bakoitzeko arduradunaren sentsibilizazioaren araberakoa izatea euskararen presentzia</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zierbenako arraunlariak euskaldunak izatea</li> <li>• 2018ko abenduaren 3an sinatutako hitzarmenean kirol elkarte guztiek parte hartzea</li> </ul> |
|--|---|

Liburugintza:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko liburuak oso jende gutxik kontsumitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegian euskarazko eskaintza gero eta handiagoa izatea</li> <li>• Euskarazko eskaintza handitzen joatea</li> </ul>

Kulturgintza:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko ekitaldien arrakasta, gaztelaniazkoarekin konparatuta, oso txikia izatea</li> <li>• Erdara huts-hutsean izaten diren ekitaldi asko izatea, euskarari espazio txiki bat ere eskaini gabe (komunikazioan, agurrean...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gero eta ekintza gehiago antolatzen direla euskaraz</li> <li>• Eskaintza gero eta handiagoa izatea</li> </ul>

Publizitatea:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko eskaintza-kopurua txikia izatea</li> <li>• Euskara hutsezko eskaintzak jarraipen handirik ez izatea (Berria,...).</li> <li>• Eskualdean euskarazko komunikabiderik ez izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikabideek gauzak bultzatzeko duten gaitasuna euskararen alde erabili ahal izatea</li> </ul>

Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Askotan euskararen kalitateari garrantzirik ez ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gero eta bitarteko gehiago izatea euskararen kalitatea zaintzeko</li> </ul>

Informazioa eta komunikazioaren teknologia:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordenagailuak, sakelakoak, softwarea euskaraz erabiltzeko ohiturarik ez izatea</li> <li>• Dagoen eskaintzaren berri ez izatea, eta premiarik ere ez nabaritzea</li> <li>• Teknologia berriak modernotasunarekin lotzen dira eta euskarak horretan dituen aukerak ez ezagutzea eta ez erabiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz erabili daitezkeen baliabideak gero eta gehiago izatea (sare sozialak, mugikorrak, ordenagailuak,...)</li> <li>• Gazteek teknologia berriak ondo erabiltzea eta euskaraz gehien dakien kolektiboa izatea</li> </ul>

Taula horiek ikusita laster ohartuko gara funtsezko arloetan Zierbenan indarguneak ez direla hain sendoak, eta ahulezi handiak ditugula.

Nabarmentzeko arloak ditugu transmisioarekin eta irakaskuntzarekin lotutakoak, esate baterako. Familia bidezko transmisiorik ez dago Zierbenan, eta apenas ezagutzen da adineko euskaldunik, baina indargune moduan aipa dezakegu umeak D erudian eskolatzen dituztela gero eta guraso gehiagok. Ume horiek etorkizuneko guraso euskaldunak izango dira lanari ekiten badiogu. Baina badu alde iluna, datozen urteetan landu beharko genukeena onik atera nahi badugu behintzat. Umeek eskolan euskara erabiltzen dute, baina eskolarekin lotzen dute, handik ateratzean, bestelako ekintzetan eta patioan, gaztelania nagusi izanik. Nerabeek ere gaztelania erabiltzen dute, nahiz eta ikasketak euskaraz egiten dituzten. Esan beharra dago, zoritxarrez, arazo hau ez dela Zierbenari soilik dagokion arazoa, Euskal Herri osoari dagokiona baizik, eta guztion artean pentsatu beharko ditugu arlo honetan eragiteko bideak eta baliabideak.

Aurreko paragrafoan aipatutakoarekin lotuta, eta faktore ezkor hori iraultzeko indargune bat aipatzearen, azken urteetan euskarazko aisialdi eta kultur ekintzen programa handituz joan da, eta hori positiboa da ume eta gazteak dauden ekintzetan behintzat indartuz joan daitekeelako. Hala ere, oraindik gaztelaniazko ekintza batzuk egiten dira, eta datozen urteetan kopuru hori jaisteko ahalegina egin beharko litzateke.

Administrazioko langileen artean ere euskalduntzeko neurri zehatzak hartu dira. Gutxi dira gaur eguneko herritar euskaldunak, baina pixkanaka-pixkanaka euskaldundu behar dugu administrazioa ere, gazteak gorantz doazen neurrian, kontuan hartuta beraiek euskara jaso dutela eta euskara erabiltzeko arazorik ez dutela, administrazioan ere euskaraz egiteko aukera izan dezaten.

### 3.- EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2018-2022)

---

Zierbenan 2018an euskararen egoera zein den aztertu dugu, eta, ondorioak atera ostean, aurrera begirako lanean helburu nagusitzat honako hau proposatzen dugu:

Zierbenako herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzea eta, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan (aisia, kultura, kirola...) eta adin tarteetan (haur eta gazteak) eragitea.

Horretarako erdaldunak euskarara erakartzea izango da zeregin nagusienetakoa, euskararekin harremanetan jartzea. Euskararekin harremanetan jartzeko, bakoitzaren abiapuntua hartu beharko da kontuan.

Orain arte egindako balorazio kuantitatiboa positiboa izan da Zierbenan, ezagutzak eta erabilerak gora egin baitu azken urteotan D ereduari esker. Euskarazko eskaintza aztertuta, bestalde, handituz doa euskaraz egiten diren ekintzak. Horrek guztiak ekarri du guztiz erdalduna zen gunean euskara agertzen hastea, ikusgarri egiten hastea.

Hala ere, Zierbenako euskaldun asko hiztun berriak dira, hau da, etxean eta kalean euskara ahul dagoen tokietakoak, eta Euskal hiztun berriekin, erronka berriak ditugu begien aurrean, hiztun berrien tipologiak eremu euskaldunetako hiztun tipologiarekin alderatuta, oso bestelako ezaugarriak baititu:

- ✓ Euskarak presentzia txikia duen inguru soziolinguistikoetan bizi dira.
- ✓ Komunikatzeko gaitasun mugatua dute, oro har.
- ✓ Euskara eskolarekin lotzen dute, ez dute garatu euskararekiko benetako atxikimendurik.
- ✓ Euskara oso gutxitan erabiltzen dute.
- ✓ Euskal hiztun ez osotzat dute beren burua.
- ✓ Batuera baino ez dute erabiltzen.
- ✓ Batzuek frustrazioz edo penaz bizi dute egoera hori; denek ez, ordea.

Hiztun berriak, erronka berriak, beraz. Esperientziak garbi adierazten ari dira eskola ez dela nahikoa hiztun osoak sortzeko (gaitasun, erabilera eta jarrera aldetik), eta argi dago eskolaz gain, hiztun batek sozializatzeko beste esparru batzuk ere behar dituela, euskara afektibitateari, gizarteko harremanei eta aisiari lotuta ikasteko eta erabiltzeko. Beraz, **Zierbenan hurrengo urteetako erronka sozializatzeko esparru horiek ondo elikatzea izango da.**

Familia barruko hizkuntza erabilera indartzeak du lehentasuna, beraz, familia giroan euskarazko jarduerekin gozatzeko egoerak eta ekintzak sustatuko dira.

Euskararen erabilera bermatzea beharrezkotzat jo da 0-18 urte bitarteko gazteen aisialdian. Gauzak horrela, udalak zein elkarteek antolatzen dituzten jarduerak euskaraz eskaintzeko ahalegina egingo da.

Laburbilduz, datozen urteetan indar berezia egingo da haur eta gazteen munduan euskara nagusitu dadin. Hau da, Zierbenako haur eta gazteen guneean, dela kirola edo aisialdia, direla familia gutxi batzuk, euskara sozializatzeko hizkuntza izatea izango da helburu. Horretarako, **haur eta gazte giroan dabilzan eragileak langintza horretan buru-belarri inplikatu, eta euskaraz funtzionatuko duten erabilera eremuak sortzea izango da datozen urteetarako iparra, hiztunak motibatuzko, irabazteko eta trinkotzeko.**

Orain arteko emaitzak kontuan hartuta, egiteko erak aldatu beharko ditugu, eta egiteko erak aldatu ahal izateko, bi alor aldatu behar dira:

- ✓ Zeharlerrotasuna udalaren jardueran: Euskara udal barruan zehar lerro izan dadin, Udalaren mende dauden langileek euskara plana ezagutu beharko dute, eta olana barneratu beharko dute. Izan ere, Euskarak Zierbenan aurrera egingo badu, ezin du Euskara Zerbitzuaren baitako zerbait soilik izan.
- ✓ Komunikazioa eta sentsibilizazio etengabea eragileen artean. Uste zabaldua da euskara eskolan ikastearekin hurrek euskara ondo ikasi, eta nahi dutenean, hala nahi badute, euskaraz egingo dutela. Nonahi eta nornahirekin. Uste hori, ordea, okerra da. Erabileran faktore askok eragiten dute, ingurune soziolinguistikoak, hizkuntzak duen balioa edo prestigioa gizartean, arau sozialak, eta gaitasunak, besteak beste. Zierbenan alderdi horien egoera aztertuz gero, argi ondorioztatuko dugu gaztelania gailentzen dela euskararen gainetik. Hortaz, kontzientziario eta sentsibilizazio lana egitea nahitaezkoa da. Udalak plana onetsi ostean, haur eta gazteen munduarekin zerikusia duten zerbitzuekin egingo da lanketa zehatza (batez ere kultura eta kirola zerbitzuekin).

**HELBURU ESTRATEGIKOAK – EREMUAK – NEURRIAK ETA EKINTZAK:**

**EUSKARAREN JABEKUNTZA:**

**1.- FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA:**

Helburuak:

0-12 urte arteko seme-alabak dituzten familientzako euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria eskaintzea. Euskaraz dakiten gurasoek seme-alabekin euskaraz egiten trebatzea, bereziki egunerokoan sortzen diren egoera komunikatiboei erantzuteko eta euskaraz dakiten gurasoen jarioetasuna handitzeko.

Ekintzak:

**1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea:**

- 1.1. Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea
- 1.2. Eleaniztasunaren onurak azaltzea
- 1.3. Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea
- 1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea
- 1.5. Gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea
- 1.6. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen

**3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea**

- 3.1 Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeei euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

- Euskaraz berba egiteko beldurra eta lotsa kentzekoak. Gurasolagun egitasmoa martxan jarri.
- Matrikulazio kanpainak (nahi dudalako, euskarazko produktuen katalogoa...).
- "Ondo etorri" liburuxka egiten jarraitu.
- Jolas, kanta-tailerrak, txangoak eta abar antolatzen jarraitu.
- Haur eta gurasoen arteko bizipenak sortzeko guneak eratu.

Garrantzia:

Handia.

## 2. IRAKASKUNTZA

---

### Helburua:

Zierbenan ikastetxerik ez dagoen arren, eskolaren-eremuari dagokion informazioa euskaraz izateko gurasoekin lanketa egitea.

### Ekintzak:

#### **5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea**

5.1. Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea

#### ***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak***

- D ereduaren aldeko kanpainaren diskurtsoa indartu, inguruak eta familiak duten garrantzia azpimarratuz.
- Orain arteko ekintzak indartu: kanpainak, euskarazko produktuen zabalkundea, e.a.

### Garrantzia:

Handia

## 3. EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

---

### Helburuak:

Zierbenan euskara ikasteko dauden diru-laguntzekin aurrera jarraitu, herritarrek euskara ikasteko erraztasun gehiago izan dezaten.

Euskarari prestigioa ematea, euskara arlo guztietan erabiliz.

Euskaldunak aktibatzea.

### Ekintzak:

#### **8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika**

8.2. Mintzapraktika egitasmoak (mintzalagun, berbalagun, gurasolagun..) zabaltzea.

#### ***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

- a) Euskara ikasteko dauden diru-laguntzekin aurrera egitea, herritarrek euskara ikasten jarraitzeko erraztasun gehiago izan dezaten.
- b) Hizkuntza ohiturak aldatzeko herri mailako ekimenak martxan jarri. Esaterako, ahobero eta belarriprest ekimenak.
- c) Berbalagun egitasmoa martxan jartzea.

### Garrantzia:

Handia



**EUSKARAREN ERABILERA:**

**4. ADMINISTRAZIOA**

Hellburuak eta ekintzak Uda barneko Erabilera Planean zehatzago adieraziko badira ere, hauek izango dira landuko diren neurriak eta ekintzak:

**Helburua:**

Udal barneko lanean eta herritarrekiko harremanetan euskararen presentzia areagotzea.

**Ekintzak:**

**2. Euskara ere lan eta zerbitzu hizkuntza izateko neurriak hartzea**

- 2.2. Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan-jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea
- 2.5. Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera ziurtatzea eta gehitzea

**3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.**

- 3.1. Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea
- 3.3. Herri Administrazioetako kargu publikoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea
- 3.4. Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia)

**6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea**

- 6.1. Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko
- 6.2. Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea
- 6.3. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea
- 6.4. Web orrietan euskararen presentzia gehitzea, komunikagarritasuna zainduta
- 6.5. Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe

***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

Udal langileekin harremanetan egon euskara ikasi, praktikatu, hobetu edo erabileran laguntza nahi dutenen asmoak bideratzeko (IVAPeko ikastaroak, euskara ikasteko ikastaroak, trebakuntza, ahozko azterketetarako laguntza, ikastaro laburrak...)

Beste alde batetik, herritarren hizkuntza eskubideei erantzutea bilatzen da. Lehen hitza euskaraz emanda, zerbitzua herritarrek hautatzen duten hizkuntzan ematean datza. Kontua erabili beharreko hizkuntza irizpideak ezarri eta horiek betetzea da.

Halaber, Udalaren hizkuntza-paisaiak edota Udalak argitaratzen dituen komunikazio guztiek ez dute beti betetzen euskararen legea, hau da, ele bietan idatzita dauden gutun, jakinarazpen, kartel eta testuetan batzuetan gaztelania hutsa agertzen da eta euskara ezkerrean agertu behar da baldin eta bi zutabe badaude, eta edonola ere, nabarmen azaldu behar da, nola-eta tamaina, kolore, kokapen eta abarri erreparatuta.

## **5. GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK**

---

Zierbena ez da talde honetan sartzen

## **6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA**

---

Zierbenan euskara sustatzeko egindako ekimenen artean, momentuz arlo sozioekonomikoa ez da lehentasunen artean agertzen.

## **7. AISIA ETA KIROLA**

---

### **AISIA**

#### Helburuak:

Aisialdia euskaraz goza daitekeela ikusaraztea eta ulertaraztea Zierbenako herritarrei.

#### Ekintzak:

#### **1 Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea**

- 1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan
- 1.2. Gazteen artean euskararen irudia zehaztu, hobetu eta indartzea
- 1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea
- 1.4. Adineko herritarrei propio zuzendutako aisia- eta heziketa-jarduerak antolatu eta zabaltzea

#### ***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

- a) Aisialdiaz gozatzeko antolatzen diren ekintzak eta egitasmoak euskaraz antolatzen direla bermatzea.
- b) Adin desberdinetako euskaldunei edo euskaraz ulertzen dutenei zuzendutako ekintzak antolatzea.

#### Garrantzia:

Handia

## **KIROLA**

### Helburuak:

0-18 urte bitarteko haur eta gazteentzako kirol eskaintza euskaraz izateko udala eta kiroldegia inplikatzea

### Ekintzak:

#### **8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea**

8.2 Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzeta-protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro.

8.3 Kirol elkarteentzat euskararen erabilerari lotutako sariak eta txapelketak antolatzea.

#### **9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea**

9.1. Kirol-arloan euskararen erakargarritasuna landu eta era egokian proiektatu eta hedatzea

9.2. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea

9.3. Maila profesionaleko kirolean ere euskararen erabilera sustatzea, puntako kirolarien partaidetza lortuz

#### ***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

- a) 2017ko abenduaren 3an sinatutako hitzarmena martxan jarri.
- b) Kirol elkarteekin koordinazio bilerak egin, Zierbenako kirolean euskara zelan sustatu dezakegun adosteko.

### Garrantzia:

Handia.

**EUSKARAREN ELIKADURA/KALITATEA:**

**8. LIBURUGINTZA**

---

Helburuak:

Euskaraz argitaratutako liburu gehiago kontsumitzea

Ekintzak:

**1 Irakurzaletasuna bultzatzea**

1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea

1.6. Herri liburutegietan euskarazko liburuen sustapena egitea

***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

Euskaraz argitaratutako liburuz liburutegia hornitzea eta horiek kontsumitzeko ekintzak antolatzea.

Garrantzia:

Handia

**9. KULTURGINTZA**

---

Helburuak:

Euskal kultura sustatzea

Ekintzak:

**1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.**

1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea.

**2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.**

2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.

**4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.**

4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea.

4.3. Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabide publikoen papera indartzea

***Zierbenan lantzeko ekintza zehatzak:***

Familientzako ekintzak antolatzen jarraitu: gurasoak euskarara hurbiltzeko, gurasoek euren seme-alabekin euskara gehiago erabiltzeko, gurasoen/seme-alaben arteko euskarazko komunikazioa hobetzeko... esparru/eredu gehiago sortu (gurasolagun, tailerrak, bestelako ekintzak...)

Garrantzia:

Handia

## **10. PUBLIZITATEA.**

---

2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea.

2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere.

## **11. CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA.**

---

**3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea**

3.4 Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz.

**6. Euskararen kalitatea zaintzea**

6.1. Euskararen erabilera publikoaren kalitatea bermatzea.

6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea.

## **12. HEDABIDEAK.**

---

1. Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea

1.2 Herri-administrazioen publizitate instituzionalean hizkuntza irizpideak txertatzea, hizkuntzen berdintasunaren bidean.

## **13. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK**

---

**2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.**

2.7. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.

**HELBURUAK LORTZEKO ZEHAR-LERROAK:**

**Euskararen aldeko motibazioa:**

**14. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA.**

**1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.**

1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldiak bultzatzea.

1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.

1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez.

1.7. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.

**2. Familia transmisioa.**

2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.

**4. Euskalduntze-alfabetatzea.**

4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.

**5. Administrazioa**

**Zehatzago Udal barneko Erabilera Planean agertuko bada ere, ondoko hauek izango dira zehar-lerroak:**

5.1. Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileak euskara erabiltzeko bideak erraztea eta sustatzea

5.2. Herritarrek administrazioekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten komunikazio ekintzak antolatzea

**6. Arlo sozioekonomikoa.**

Zierbernako lehenetsuen artean agertzen ez bada ere, ondokoa proposatzen da:

6.3. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarraren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.

**7. Aisia eta kirola.**

7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

**8. Liburugintza.**

8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea.

**9. Kulturgintza.**

9.5. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gidak, argitalpen txikiak.

**10. Hedabideak eta publizitatea.**

10.1. Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.

**11. Teknologia berriak.**

11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten.

---

**Euskararen zabalkundea:**

---

**15. BARRUKO PROIEKZIOA.**

---

2.1. Kultura edo kirol jarduera jendetsuetan euskarazko komunikazioa (idatzizko zein ahozkoa) bermatzea.

**16. KANPOKO PROIEKZIOA.**

---

7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea.

**17. BESTELAKOAK.**

---

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak.

17.1.3. ESEPen kokatzen ez diren ikerketak egitea hizkuntza diagnostikoari, planifikazioari eta abarri buruz.